

DEBA. LUPE LEKUONA IPUIN KONTALARIA

Haurrei kontatzen dizkiezun ipuinak errealitate bezala hartzen dituzte

Lupe Lekuona Ostolaza Liburutegian ibili zen atzo 7 eta 10 urte bitarteko haurrei ipuinak kontatzen

Debara etortzen den lehen aldia izan zen atzo. Ostolaza Udal Liburutegian aritu zen ipuinak kontatzen 7 eta 10 urte bitarteko umeei. Lupe Lekuonak urtebete darama ipuin kontalari gisa, baina jadanik herri askotatik igaro da bere istorioak azaltzen. Ume ugari bildu ziren hondarribitar honen ipuinak entzuteko, eta hauen arreta bereganatu zuen.

-Zerk bideratu zintuen ipuin kontalarien mundura?

- Lehen irakaslea nintzen, eta lan honetan gehien gustatzen zitzaidan atala ikasleei ipuinak kontatzea zen. Haurrak pozik jartzen ziren istorio politak entzuten zituztenean, horretaz ni jabetzen nintzen eta gustukoa nuen.

- Zaila iruditzen al zaizu lan hau?

- Urtebete daramat soilik. Mundu honetan sartu nintzean galdera hau egin nion neure buruari: ' Zaila izango ote da? '. Nik, zorionez, laguntza asko jaso dut eta horrexegatik ez dut arazorik izan, beti egon baita jendea niri laguntzeko prest. Hasten zarenean ipuin kontalari gisa ikusi behar duzu zer norabide hartu nahi duzun, baina nik, behintzat, pertsona eskuzabalekin topo egin dut eta bere laguntza eman didate beti.

- Zer duzu horren gustuko umeen mundutik

- ' Inozentzia ' eta fantasia. Kontatzen dizkiezun istorioak errealitate bezala hartzen dute, eta momentuan gertatzen ari dela uste dute.

- Saioak egiten dituzunean bi taldetan banatzen dituzu umeak: 3-6 urte bitarteko haurrak eta 7-10 bitartekoak. Zergatik egiten duzu?

- Horretan saiatzen naiz beti, baina batzuetan ezin dut eta talde nahasiak aurkitzen ditut. Kontuan izan behar dugu, urteen arabera umeen zailtasunak ezberdinak direla. Ulermen maila edo psikologia guztiz diferenteak dira, horrexegatik 3 eta 6 urte bitarteko haurrei ezin diezu 7 eta 10 urtekoei kontatzen dizkiezun istorio berak eskaini. Hau betetzen ez bada, ez da harrizkoa ume batzuk istorioan galtzea.

- Zer ipuin motak gustatzen zaizkie umeei?

- Barregariak beti arrakastatsuak izaten dira. Beldurrezkoak ez dituzte gogoko, baina gustatzen zaizkie bat-bateko sustoak dituztenak. Hauek erakargarriak izaten dira umeentzat, zeren eta gaur egungo haurrak oso irekiak baitira.

- Zer trikimailuak erabiltzen dituzue ipuin kontalariek haurren arreta erakartzeko?

- Gaur egungo umeei zaila gertatzen zaie arreta mantentzea, azkar hasten baitira euren gauzetan pentsaten, eta orduan galtzen dira. Horrexegatik, garrantzitsua izaten da haurren interesa lortzea, eta horretarako ahotsa

egokitzen dugu, batzuetan baxu hitz eginez eta beste batzuetan altu. Halaber, keinuak erabiltzen ditugu edo umeen begirada harrapatzen saiatzen gara.

- Nola aurkitzen dituzu interesgarriak diren ipuinak?

- Lan honetarako asko irakurri behar da, bai hemengo tradiziokoak bai kanpoko istoriokoak. Nik liburuetatik hartzen ditut istorioak, eta gero nire erara moldatzen ditut pixka bat. Hala ere, batzuetan zaila izaten da politak diren istorioak umeei azaltzea, baina hori gure eginkizuna da.

DATUAK Jaio: Hondarribian jaio zen 1964. urtean.

Lana: 20 urte eman zituen irakasle lanetan.

Ipuin kontalaria: Orain dela urte bat hasi zuen ipuinak kontatzen. orduz geroztik erri askotan ibili da lan honekin: Hondarribia, Orio edo Itsasondon, adibidez.